

POLITIKARIAK-KAZETARIAK: BOTEREAREKIKO LILURA

Txema Ramirez

Gizarte eta Informazio-Zientizen Fakultateko Irakaslea

Masa-komunikabideak eta politikarien arteko harremanen historia istilutsua izan omen da. Halaxe izan behar da gainera, pentsalari liberalen aburuz. "Bata bestearen zaindari izan behar da beti", diote. Horixe omen da, gainera, "independentzia"ren bermarik onena. Artikuluan zehar, enfrentamendu hori zertan dagoen aztertzen da. Horretarako, hitzaren boterea, politikari-funtzionarioek "ongi esanaren artea"z gauzatzen duten erabilpena eta albiste-iturri ofizialek mass-medioetan daukaten erabateko nagusitasuna ikertzen da, besteak beste. Menpekotasun honek dakarren ondoriez ere mintzatzen da, hots, kazetari-mezuek instituzio burokratiko eta ofizialen erritmo eta egituretara egokitzeko daukaten ahalmenaz. Egilearen ustez, egungo kazetariak albiste-iturri horiekiko "Stockholmgo sindromea" ere pairatzen dute. Giro horretan, zentsura zuzenaren mamuak ez du zentzurik, ez bait dago horren beharrik. Sistema komunikatiboak jasaten duen gaixotasun hauei aurre egiteko sendagai bat proposatzen du: sistemaren beraren sakoneko demokratizazioa, hain zuzen.

Politikari eta kazetarien arteko harremanak gaurregun nahasi xamar omen daude. Politikarien eritziz, prentsari datxekion ahalmena ("Laugarren boterea") inoiz baino ageriago azaltzen ari da. Honen lekuko, Juan Guerra "*hermanísimo*-aren" eskandalua eta bere ondorioz etorri zen presidenteordearen dimisioa, alderdien finantzaketa polemika, GAL erakundearen ikerketa, e.a. luze bat izango litzateke. Gobernuaren ingurutik akusazio gogorak jaurtiki dira prentsaren paperaz. "Kazetari guztiak lotsagabeak dira" esan berri du senadore sozialista batek Madrilgo Senatuan. Haserre honen pizgailua zenbait senadoreren jokabide maltzurra -ohitura demokratikoetatik urrun dagoena- izan zen, hots, hainbat parlamentarik IRPF legearen aldaketan burutu zuten iruzurra (batek baino gehiagok bi eta hiru bider botoa eman bait zuen egun hartan). Gauzak horrela, badirudi sistemak prentsari ezartzen dion ahalmena -"zaintzailearena", hain zuzen- betetzen ari dela.

Ezker aldetik berriz, eta gure herrian ezker abertzalearen mundutik bereziki, komunikabide eta kazetarien lana aztertzerakoan, batzutan jarrera eskematikoegiak erabiltzen direla, uste dut. Sektore honentzat, ezinbestekoa da medioen jabegoa noren eskuetan dagoen argitzea, hau da, burgesia ala herriaren eskuetan. Beraz, eta gauden garaian gaudelarik, mass-mediak Euskal Herriak bere askapen nazional eta soziala lortzeko daraman prozesuaren etsaiak lirateke. Eztabaida horretan amaitzen da, bestelako argudioetan sakondu gabe.

Batzuren baikortasuna (hasieran aipatu dudan teoria defenditzen

dutenena) eta besteen eskematismoaren artean zeresanik badagoela uste dut. Horixe da, hain zuzen, hitzaldi xume honen helburu nagusia. Gaiaren gaurkotasuna ezin da beraz, ukatu. Ondoren, eztabaida korapilotsu honen abiapuntuak argitzen saiatuko naiz, hau da, enfrentamendu horren errealitatea eta fikzioa non hasi eta amaitzen den edota prentsa benetan laugarren boterea ote den, ala, berriz, beste hiruen (exekutibo, legislatibo eta judizial) bozeramailea.

Baina, aurrera segi aurretik, hona hemen datu interesgarri bat¹, frantsesen %67k mesfidantza handiz juzkatzen ditu hedabideek ematen dituzten albisteak. Portzentaia hau hamabi puntu igo da azken bi urteotan. Honen arrazoia, mezubideek Errumaniako Iraultza (Timisoaran izandako hilketa-kopurua zela eta), Carpentras kanposantu juduaren profanazioa eta Golkoko Gerra bezalako gertaerei emandako tratamendu desegokia. Frantsesen ustez jazoera hauetan kazetariak ikuskizuna eta informazioa nahastu zuten. Zuzeneko konexioak hainbat egin ziren, baina funtsean gertatzen ari zena ez zuten azaldu, dio aipatu ikerketak. Euskal Herrian antzeko inkestari egin ez bada ere, ziur naiz emaitzak ez zirela oso desberdinak izango. Argi dago beraz, komunikabideen funtsa eta boterea eztabaidagai sutsua ditugula.

Hitzaren boterea

Mezubideak altxor preziatua dira nonnahi. Horretaz ez dago dudarik. Informazioa eta boterea, boterea eta informazioa konzeptuek banaezinezko binomio lege agertzen zaigu. Sanchez Bravok (1979:119) dioen

bezala "Hitzen erabileraren boterea, botere ikaragarria da". Hitzak errealitatearen zati mugatu bat definitu eta murriztu egiten du, lengoaiaren bitartez artikulatuz. Horretan datza bere boterea.

Erabilpen honetatik gizasemeon kontzientzia manipulatzera dagoen jauzia oso urria izan daiteke. "Gobernatzen dutenek betidanik izan dute -dio aipatu egileak- ongi idatzi eta hobeto pentsatzen dutenen beharra". Eta Paul Ricoeur-ek² aipu hau gaineratzen du: "Beti da posible 'ongi esatearen artea', 'egia esatearen desioaren' gaineratik pasatzea". Hau da, sarritan hobe dela erdipurdiko egia bat apaingarri distiratsu eta liluragarri askorekin esatea, benetazko mamia agertzea baino. Horra hor, esaterako marketingaren legeak ezarritako hainbat irudi freskagarri, esamolde eta jokabide eztabaidagarriak, edota politikariek gauza arruntenak izendatzeko darabilten nomenklatura arraroa ("politikariei ez zaie ulertzen" dio batek baino gehiagok).

Ideia hauekin bat dator Bagdikian (1986:237) estatubatuarra. Bere ustez, hedabideen boterea guztiz politikoa da. Are argiagoa da beste aipu hau: "informazioa kontrolatzeko boterea gizartea bera ere kontrolatzeko baliabide garrantzitsuenetarikoa da". Agintari politikoak ongi asko jabetu dira informazioa eta hitzaren poderioaz. Aipatu ikerlari honek dioen bezala (1986:14): "Albiste eta informazioen jabetza lortzen duen lehenak botere politikoa eskuratuko du, hau da, gauzak errebelatu ala ezkutatzeko gaitasuna, pasarte batzu aditzera eman eta beste batzu berriz ezkutuan gordetzeko aukera, gertaerak momenturik egokiena ailegatu arte

erreserban mantentzeko ahalmena edota kaleratutakoaren interpretazioa alde aurretik mugatzeko boterea. Demokrazien eroaleek (...) ideien jabetza lortzeko erakusten duten lehia, informazioa kontrolatzeko duten gogo biziaren parekoa da. Kasu bietan, irrika hori ez da armadek gauza bera egiteko duten desira baino ttipiagoa".

Sailkatu ditugun ahalmen hauen garrantzia, (hau da, gauzak estaltzeko, pasarte batzu argitara eman eta beste batzu patrikan utzi, momentu egokienaren aukeraketa eta abar) ikaragarria da. Har dezagun adibiderik arruntena, prentsaurreko baten konbokatoria, esaterako. Politikariak dira (edota beraien prentsa-arduradunak) gertaera horiek noiz, non eta nola jakitera emango diren erabakiko dutenak. Eta ez bakarrik hori, baizik eta zer esan eta zer ez esan. Guzti hori gutxi balitz, politikariak dira, gertaera horien zergatia -alde aurretik beraiek modu partzial batez emandako datuen arabera- azalduko dutenak. Beraz, albistearen oinarriko elementuak (NORK, ZER, NOIZ, NON, NOLA eta ZERGATIA) beraien eskuetan daude. Ondorioz, albistearen produkzio-sistema ere beraien eskuetan dago. Gaitasun hori ez dagokio berriz, informazioaren hartzaileari, hau da, hurrengo egunean albiste irakurriko duenari.

Era honetan, Gobernu guztiek informazioa "ondasun publiko"tzat jo arren, (legez hiritar guztiei dagokien eskubidea), errealitatean botere horren pribatizazioaren alde azaltzen ari dira. Informazioa, datuak eta gertaerak gero eta esku urriagotan kontzentratzen ari dira, inor gutxik ezer gutxi esan arren.

Mendebaldeko gizarteetan sistema komunikatiboaren logika eta oreka

ikertu duen beste teoriko garrantzitsua dugu Giovanni Cesareo italiarra. Beronen ustez (1986:44), gaurengoko sistemaren kontradikziorik garrantzitsuena ez da mezubideen jabegoari dagokiona, albiste-iturrien pribatizazio-prozesuari dagokiona baizik. Hau da, albiste-iturriak gero eta esku bakanagoetan (botere politiko nahiz ekonomikoaz ari gara) agertzen dira. Modu horretan prozesu guztia (igorlearengatik hartzailerenganainokoa) guztiz baldintzaturik suertatzen da. Beste hitz batzu erabiliz, "honelako iturrietatik halako albisteak" izango ditugu.

Hala ere, mezubideen alorrean gertatzen ari den kontzentrazio-prozesua eta berorrek sortarazten dituen ondorioak, ezin ditugu hemen aipatu gabe utzi³. Jokabide hau argiro nagusitu da estatu espainolean, 1982. urteaz geroztik, data horretan orduko Gobernuak bere oneritzia eman bait zion atzerritar kapitalen sarrera baimentzen zuen dekretuari. Masa-komunikazioaren "handiak" Murdoch, Hachette, Hersant, Bertelsman, Maxwell, Berlusconi, eta abar guztiz erroturik ditugu gure artean. Beraien esku edo beraien bitartez kaleratzen diren egunkariak eta aldizkariak, batez ere prentsa espezialduaren alorrean, gero eta ugariagoak dira⁴. Haien apostua argi dago: dirua nola edo hala irabazi eta noski kontzientziak kontrolatu. Testuinguru honetan adierazpen-askatasuna non eta nola gelditzen den ikertzeak beste lantxo bat mereziko luke. Baina, gai honen arrazoia bestelakoa denez, segi dezagun aurrera.

Politikarien "ezinbestekotasuna"

Albiste-iturrien auziarekin jarraituz eta testuingurua gero eta gehiago

mugatuz, hauxe dakusagu Mendebaldeko sistema komunikatiboan: politikarien ezinbestekotasuna kazetari espezialduentzat, eta batez ere politikaren gorabeherak segitzen dituztenentzat, politikarien hitzak behar-beharrezkoak dira. Beraien lehengaia dira. Egunero gainera. Politikariak eta berauek gobernatzen dituzten erakundeak ezinbestekoak dira gaur egun informazio politikoaren orrialdeak (prentsa) edo minutuak (TB/irratia) betetzeko. Beraien artean -kazetari eta politikariez ari naiz- sortzen diren harreman pertsonalak estuak eta, normalean, luzaroan irauten duten tratuak dira, azken batean egunero elkarrekin egoten bait dira. Egoera honetan, zaila suertatzen da konfidantzaren giro hori galdera edo jokabide zorrotzekin apurtzen ausartzea, kontutan izanik gainera, beraiek direla "datuen jabeak". Eta norbait noizbait gurpil eroaren dinamika honetik kanpo ateratzen bada, badaki zertara arriskatzen den, beren iturriak galtzera behinik-behin. Funtzionariak edo politikariak berriz, ez du horrelako problemarik. Beti egongo da norbait beraren informazioen zain. Hainbat izan dira gainera (Ofa Bezunartea, 1988:169) politikarien itzalean "karrera" egin duten profesionalak⁵.

Bestalde, erakunde publiko horiek gizarteak eman omen dien legitimitatearen zama daramate bere gain. Berauetan kontzentratzen diren albiste-iturriek (Gaye Tuchman, 1983:224) "iturri legitimatua" legez funtzionatzen dute. Ohitura eta denboraren poderioz, beraz, kazetariak eta politikarien arteko identifikazio-prozesua erraz gerta daitekeen prozesua dugu. Horrek ez du esan nahi, noski, kazetari guztiak erakunde

horien esanetara hitzez hitz eta egunez egun makurtu behar direnik, noski. Baina argi dago, legitimazio horren barruan, politikari eta kazetarien artean maiz "kotsentsura" ailegatzen direla, jada konturatu gabe (Leon V. Sigal, 1978:59). Egoera honetan, (Mark Fishman, 1983:111) "kazetariak honako hau pentsatzen dute: funtzionari ofizialek benetan dakitena erakusten badute, beren hitzak ezin direla beste 'bertsio bat' bezala kontsideratu, jakintzaren demostrazio bezala baizik".

Berdin dio gainera berriemaile guztiek albiste berbera publikatzen badute (ezin da beste modu batez izan, media guztietako kazetariak bait daude Gobernuaren prentsaurrekoetan). Azken batean, kazetariak beste gizaseme guztiok bezala, ziurtasuna behar du. Zalantzak eta ezbaiak ez ditu gogoko, gorrotatu egiten ditu. Sigalek dioen legez (1978:100), "zenbat eta kazetari gehiagok albiste berbera publikatu hainbat hobeto" beraien erizpide profesionalak konfirmatuta gelditzen bait dira.

Sare honetatik kanpo gelditzen diren albiste-iturriek (gure kasuan herri-mogimenduenak, esaterako) mezubideetan nekez izan dezakete erakunde ofizialek duten adina ohiartzun. Hauek (funtzionarioak, hain zuzen) ez dute beren "albis-tegarritasuna" frogatu behar, beti bait dira "albigarri". Ez ahaztu, informazioaren munduan oraindik "star-system"en garaian gaudela (Villafañe, J. eta beste, 1987:147) eta "izarren" (hau da "jende garrantzitsuaren") distira hori hedabideetan egunero isladatzen zaigula.

Bestelako iturriek berriz (unibertso ofizialetik at daudenak) bai. "Albis-tegarritasunaz" gain, "sinesgarritasuna" esijitzen zaie. Osterantzean, funtzionarioekin ez da ez bata zein bestea gertatzen. Beraz, legitimazio-prozesu honek modu bikoitzez funtzionatzen du. Batetik, funtzionariei sinesgarritasuna eskainiz eta, bestetik, iturri ez-burokratikoaren deslegitimazioa eraginez. Hau honela, iturri hauek sistema informatiboaren periferiara kondenatuak izango dira (G. Cesareo 1986:I), hau da "anekdotaren kategoriara" mugatuak (albiste "laburrak" bezala) edota sistematik egotziak izango dira⁶, horrek dakartzan zailtasun guztiekin.

Legitimazio-prozesu honetan bada arreta berezia merezi duen beste fenomeno bat, azkenaldi honetan prentsa-bulegoen ugalketari dagokiona, hain zuzen. Erreforma politikoaren hasieran sortutakoak, erakunde hauen funtzioa labor esanda haxe zen: gizarte eta erakunde ofizialen artean zegoen hutsunea murriztea, masa-komunikabideen bitartekaritza horretarako erabiliz. Prentsa-bulegoak profesionalizatuz joan diren heinean, handiagotuz joan da beraien islada komunikabideetan. Esperientziadun kazetariekin osatuak, Prentsa-bulegoek komunikabideen lana planifikatzeko daukaten ahalmena izugarria da. Ohizko prentsa-agiri, ohar, txosten eta konfidentziez gain, (haxe bait da beraien betekizun garrantzitsuenetarikoa), mezubide guztien agenda mediatizatzen dute, euren prentsaurrekoen bitartez. Lehen aipatu dugun "ziurtasun" faktorea jokoan sartzen da hemen berriro ere. Kaleko jendeak kontrako eritzia izan arren, gaur egun albisteak ez dira "bapatean" sortzen (ezbeharrak eta

bestelako salbuespenak salbu, noski). Egunero irakurri edota ikus-entzuten ditugun albisteak aldeztu aurretik iragarritako zerrenda baten ondorioak dira, Prentsa-bulegoek sortarazi duten agendaren emaitzak hain zuzen. Gauzak horrela, erredaktoreburuek eguneko lana banatzerakoan nahiago dute beren orrialdeak/minutuak iragarrita dauden prentsaurrekoekin "ziurtatu" bapatekotasunari lekua eman baino. Eta noski, guzti horren ondorioz, are eta nabarmenagoa egiten da erakunde ofizialen presentzia, berauen esku bait daude, jakina, Prentsa-bulego boteretsu eta "profesionalenak".

Legitimazio-prozesu honen ondorioz, bere barnean (ikusitako dugun legez) "kontsentsuaren legea" (kazetari eta funtzionarien artekoa), "Star-system"en ahalbideak, "sinesgarritasuna"ren balorea eta prentsa-bulegoen eragina daudelarik, albiste-iturri ofizialen nagusitasuna erabatekoa da⁷. Nagusitasun horretan datza, dudarik gabe, sistema politikoak bere helburuak aurrera eramateko duen estrategia.

"Stockholngo sindromeaz"

Euskal Herrian aski ezaguna dugu masa-komunikabideek "Stockholngo sindrome" bezala definitu duten fenomeno. Hitz hauekin, bahiketa luze bat amaitu ondoren gatibuek beren bahitzaileekiko erakusten duten begikotasuna definitzen da. Normalean tratu jentilaren ondorioa izaten da. Poliziak ez bahitutakoen portaera eta sarritan egiten dituen aldarrikapen bitxiak diskulpatzeko aitzaki ezin egokiagorik ere dauka. Gogoan izan 1988.ean Emiliano Revillaren kasua.

Zenbait kasutan ere, begikotasun horrek bahitzaileen ideiekiko kidetasun-sentimendu handiak izatera eraman dezake. Kasurik aipagarriena 1975.ean gertatu zen EEBBetan. Bahitutakoa, Patricia Hearst, beren bahitzaileen talde armatura pasatu zen, defenditzen zituzten ideia berberak bereganatuz.

Prentsaren munduan antzeko zerbait gertatzen dela esan genezake, hau da, kazetari askok eta askok, urteen poderioz, nola edo hala, bere egiten dituztela beraien editoreek defendatzen dituzten jokabideak. Secanella irakasle madrildarraren ustez (1986:22) kazetarien identifikazio hau ere beraien albiste-iturriekiko ere somatzen da⁸. Hau da, ez dela beren editoreekiko soilik gertatzen, baita egunero tratatzen eta ikusten dituen iturriekiko ere. Mauro Wolf-ek (1987:207) ederki laburbildu zuen fenomeno honen tipologia. Beronen ustez, kazetarien inguruan egunez egun eta jada oharkabe ehuntzen joaten den testuinguru profesionalak eta burokratikoak egundoko garrantzia du. Wolf-en ustez, 1955.ean Breed-ek definitu zuen "erredakzioen kontrol soziala"k zutik dirau. Honen arabera, mezubideen linea editoriala -harrigarria bada ere, kazetarien artean oso-oso gutxitan aipatua eta eztabaidatua suertatzen dena -"osmosia"ren bitartez barneratua izaten da. Hau da, urteak pasa ahala, kazetariak "normal"tzat jotzen dute bere enpresaren ideologia eta jokabidea. Bere egiten dituzte gainera beraien erredaktoreburuek egunero darabilten erizpide profesionalak, beste arrazoien artean kategoriaz igotzeko baliagarri gerta dakielako, noski. Haien orientabide profesionalak (Wolf, 1986:207) ez dira publikoarengandik etorriko, beraiekin diharduten edo beraien gainetik dauden lankide

profesionalengandik baizik. Breed-en⁹ ustez, sei dira kazetaria egunkariaren ideologia onartzera ("osmosia") bultzatzen duten arrazoiak: a) aginte instituzionala eta zigorren beldurra; b) betebeharraren sentimenduak eta nagusiei zor zaien onespena; d) enpresako piramidearen goiburura hurbiltzeko asmo eta aspirazio profesionalak; e) bere "taldetxo"-rekiko fideltasuna; f) lanak berak eskaintzen duen poztasun profesionala eta g) notiziak gizartean duen balorea. Guzti honen ondorioz, kazetariak bere postura argi zein den agertu beharrean, bere erizpideak (profesionalak eta sozialak) erredakzioan somatzen den pragmatismora egokituko ditu. Hau honela, erraz uler daitezke gure "fakultate garaian" "gorrien artean gorrienak zirenak" eta gaur egun egunkari kontserbadoreen goi-karguetan edota prentsa-bulego arduradun bezala aritzen direnen patua.

Egoera honetan, zentsura zuzenaren mamua gero eta gehiago iluntzen da. Erredakzio maneiakor eta sumisoaren aurrean, funtzionarioek eta mezubideetako jabeek ez dute horren beharrik, nagusien ideologia barneratu dutelako. Fenomeno hau mezubide guztietan gertatzen dela esan dezakegu. Berdin dio eskubikoa zein ezkerrekoa izan. Esperientziak argi demostratu du erredakzioetan gertatzen diren enfrentamendu profesionalak oso urriak direla. Bakoitzak ongi baino hobeto daki zeintzu diren bere mugak, noraino iritsi eta nondik ezin daitekeen pasa. Marra hori, urteen poderioz bere buruan margotu duen muga hori, ez du huskeria batengatik gaindituko.

Haatik, gatazkak sortuko dira, noski. Honen lekuko, gaur egun PSOEko Gobernu eta prentsaren

artean dagoen enfrentamendu-giroa (Euskal Herrian ez da horrelakorik gertatzen). Sigalek (1978:233) dioen bezala "[funtzionarioak]...bilatzen ari direna aurkitzen ez dutenean edota beraien ustez, 'albiste txarrak' jasotzen dituztenean, politikariak mesfidantza handiz begiratzen dute beren iturria". Grekoek egiten zuten legez (albiste txarrak zekartzaten mezulariak sakrifikatuz), politikariak beren zalantzak –prentsaren egoerari buruzkoak hain zuzen– toki guztietatik barreiatzen hasten dira". Beren sumintasunean murgildurik ez dute ezer ikusiko, beren erresuma omen dena "profanatu" izan dela baizik. Hauxe litzateke agian gaurko egoeraren panorama.

Enfrentamendua sistemaren oinarritzko hastapenei buruzkoa denean, portaera guztiz desberdina da. Gai hauek (monarkia, merkatu-legea, Espainiaren batasuna, e.a.) ikutu ezinak dira gaurregun. Beraz, horri buruz zerbait agertzekotan, guztiz ukatua, desitxuratua ala sistema informatiboaren periferiara kondentatua izango da ("bitxikeriak" ala "albiste laburrak" bezala). Bestelako gaiak, berriz (sistema politikoaren "desajustek", politikarien iruzurrak, e.a.) "albigarriak" izango dira, sistema beraren oinarriak kuestionatzen ez duten bitartean. Horretan datza diferentzia.

Konklusioak

Esandakoak esan eta Mendebaldeko sistema komunikatiboak politikari eta kazetarien arteko harremani ezartzen dien dinamika aztertu ondoren, ondoko konklusio hauek atera ditzakegu.

Lehenengo eta behin, argi gelditzen da, Gayer Tuchaman ikerlari estatubatuarrak dioen legez (1983:224,230) "**albisteak Estatuaren legitimitatea eta beronen 'status quo' konfirmatzen duela**", iturri ofizialen erabateko nagusitasunak erakusten duen legez. Aldi berean, "notiziak, beste gauza batzuren artean, errealitatearen interpretazioaren inguruan botereak ezartzen duen iharduera direla" (Schlesinger)¹⁰.

Beraz, **mendebaldeko gizarteak, prentsa-askatasunaren izenean, mezubide eta agintariei ezartzen dizkien funtzio desberdinak** (konzeptzio liberalaren arabera) (Borrat 1989:60), **teoriaz bata bestearen zaintzaileak, hain zuzen, kolokan edo ezbaian bederen daude une honetan**. Eta hori gertatzen denean (Bagdikian 1986:222) "gizartearen beraren osasuna zaintzeko ezinbestekoa den premisa bat (hots, jokabide desberdinena) ezabatzen ari da".

Gauzak horrela, inor gutxi asaldatzen da gaur Juan Carlos erregea, Felipe Gonzalez edo Ardantza

jaunak atzo esandakoa egunkarietan irakurtzerakoan, beraiek bait dira, azken baten "star system" horren protagonista nagusiak. Baina, (Sigal 1978:229) gure gaurko sistema informatiboa gai izango litzateke egun K. Marx-en "Kapitala" edo Darwin-en teoriak behar bezala tratatzeko ala guztiz oharkabe pasatuko ziren? Beldur naiz bigarren aukera hau ez ote zen nagusituko. Historiaren garapena markatu duten teoria horiek, asko bezala, "bitxikerien" atalera zokoratuak izango liratekeela susmatzen dut.

Amaitzeko, gogoeta apal bat. Hemen azaldutako kezka eta galderek honako hau ikusterazten digute: alferrikakoa dela gaurko sistema informatiboaren garapen teknologikoa, ez badiogu sistemaren beraren sakoneko demokratizazio prozesu bati ekiten, hau da, informazioari dagokion zerbitzu publikoaren statusa bermatuko dion aldaketa. Informazioa bait da, azken batean, hiritar guztioi dagokigun funtsezko eskubidea eta ez gutxi batzuk gertaerak nahi duten eran aurkezteko daukaten ahalmena.

Oharrak

- 1.- *Noticias de la comunicación*, 8. zenbakia 1991ko ekainaren 10tik 16ra bitartekoa.
- 2.- In "Periodistas: Mensajeros, escribas y retóricos". 119. orrialdean.
- 3.- Hego Euskal Herrian saltzen diren zortzi egunkarien %58a COMECOSA enpresaren eskuetan dago (El Correo español eta Diario Vasco). Berauetan, akzio gehien jabetza bakar bati dagokio, Ibarriari, hain zuzen, BBV finantzial etxea menperatzen duen berbera.

- 4.- Horra hor besteak beste, "Mía", "Dunia", "Ser padres", "Muy interesante", "Natura" eta "Geo" aldizkariak (Bertelsman taldearen eskutan) edota "Teleprograma", "Futuro empresarial" "Elle" (Hachette), "El período informático", "PC magazin" (VNU talde holandarraren esku), "Autopista", "Motor clásico", "Motociclismo" (Vereiningten Motor Verlag talde alemaniarraren menpe), "Tv plus" (Bauer taldeari lotuta) eta "Mari Claire" talde finantziarrak "Grupo 16 taldearen argitarapenetan duen partaidetza. Horretaz gain, kontutan izan Berlusconi italiarrak "T5" Espainiako kate pribatua n duen partaidetza (%25arena) eta ETBrekin, bere taldekidea den Fininvest enpresaren bitartez, duen komenioa (publizitate alorrean). Azkenik aipatu RCS talde italiar indartsuak -zeinak besteak beste Corriere della Sera eta Gazzetta dello Sport kaleratzen dituen- Estatu espainolean burutu berri duen azkenengo inbertsioa, hots, "El Mundo" egunkaria kaleratzen duen editorialaren akzioen %45az jabetu da.
- 5.- Euskal Herriko politikagintzan gero eta normalagoa da informazio politikoaz arduratzen diren kazetariak politikarien prentsa bulegoetara pasatzea. Azken Jaurlaritzaren osaketan kasu ugari gertatu dira. kargu heuek behinbehinekoak izan arren, kazetari hauek normalean jada beti daukate beren jatorrizko lanpostura ituzltzeko aukera. Bizkitartean lau edo zortzi bat urtetan, beren diru sarrerak bikoiztu ala hirukoiztu egin dira. Gainera, bere balorazio profesionala igo egin da nabarmenki.
- 6.- Fenomenologia hau argi ikusten da sistima kapitalistaren zutabeak kuestionatzen duten mogimenduekin. Zenbat eta "radikalagoak" izan, beraien mesfidantzak hainbat eta handiagoak izango dira.
- 7.- Leon V. Sigal-ek aipatu liburuan demostratu zuen "The Washington Post" eta "New York Times" egunkarietan argitaratzen ziren albisteetatik bi heren iturri ofizialetatik zetozela (ikerketaren unibertsoa 3.000 albisteena izan zen). Atlantikoa zeharkatu gabe, Euskal Herrian, EHU-UPVko irakaslea den Ofa Bezunartek (1988:151) egin berri duen ikerketan erakusten denez, "Deia"n publikatzen diren albisteen %40,5 erakunde ofizialetatik datoz. "El Correo español"en kasuan portzentaia %32,5ra murrizten zen. Nagusitasuna beraz begibistakoa da.
- 8.- Are gehiago esaten du Petra María Secanellak: "kazetal usteltasuna albiste iturri bakar batekin lan egiten denean hasten da".
- 9.- In *La investigación en la comunicación de masas. Crítica y Perspectivas*. (Wolf Mauro) (1986:207). Jatorrizko aipua "*Social control in the New Room: a funcional analysis*", aldizkaritik aterea dago. Social forces, 33. zenbak. (326-335 orr.)
- 10.- In Wolf M., Op. cit. (1987:255). Jatorrizko aipua Schelesinger P.k 1972. urtean Meeting of British Sociological Association-aren aurrean eta *The Sociology of Knowledge* izenburupean aurkeztu zuen ponentziatik aterea dago (4. orr.)

Bibliografía

- BAGDIKIAN Ben H; *El Monopolio de los medios de comunicación*, 256 orr. Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 1986.
- BEZUNARTEA, OFA; *Noticias e ideología profesional, La prensa vasca en la transición política*, 230 orr. Ediciones Deust., Bilbo, 1988.
- BORRAT, Héctor; *El periódico, actor político*, 167 orr, Gustavo Gili S.A., Bartzelona, 1989.
- CESAREO, Giovanni; *Es noticia. Procesos, fuentes, tecnologías y temas del aparato informativo*, 153 orr., Mitre Bartzelona, 1986.
- FISHMAN, Mark; *La fabricación de la noticia*, 190 orr., Ediciones Tres tiempos, Buenos Aires, 1983.
- SANCHEZ-BRAVO CENJOR, Antonio; *Periodistas: Mensajeros, escribas y retóricos*, 231 orr., Pirámide, Madril. 1979.
- SECANELLA, Petra M., *Periodismo de investigación*, 122 orr, Tecnos, Madril, 1986.
- SIGAL, Leon V.; *Reporteros y funcionarios. La organización y las normas de elaboración de las noticias*, 240 orr, Ediciones Gernika, Mexiko, 1978.
- TUCHMAN, Gaye; *La producción de la noticia. Estudio sobre la construcción de la realidad*, 291 orr., Gustavo Gili S.A., Bartzelona, 1978.
- VILLAFAÑE, J, BUSTAMANTE, E, eta PRADO E. *Fabricar noticias; las rutinas productivas en la radio y TV*, 158 orr., Mitre Bartzelona, 1987.
- WOLF, Mauro, *La Investigación en la comunicación de masas, Crítica y Perspectivas*, 310 orr., Paidós Ibérica S.A., Bartzelona, 1987.